



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Errege naiz, zeuk diozun bezalaxe”

2024ko azaroaren 24a
Kristo Erregea (B)

Joan 18, 33-37.

Pilato barrura sartu zen berriro eta, Jesusi deituz, galdegin zion: -Zu al zara juduen erregea?

Eta Jesusek: -Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?

Pilatok erantzun zion: -Judua ote naiz, bada, ni? Zeure herrikoek eta apaizburuek ekarri zaituzte niregana. Zer egin duzu?

Jesusek erantzun: -Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo zuen ni judu-agintarien menpe ez erortzeko; nire erregetza, ordea, ez da hemengo.

Orduan, Pilatok esan zion: -Beraz, errege zara zu?

Jesusek erantzun zion: - Errege naiz, zeuk diozun bezalaxe. Horretarakoxe jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egitera. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa.

Jesusek erantzun zion: -Errege naiz, zeuk diozun bezalaxe. Horretarakoxe jaio eta etorri naiz mundura: egiaren testigantza egitera. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa.

EGIA ERAGIN

Jose Antonio Pagola

Jesusen kontrako auzia, Jerusalemera joatean, Pilato bizi ohi zen jauregian egin zuten segur aski. Han topo egin zuten, hogeita hamargarren urteko apirilaren goiz batean, Jesus izeneko akusatu babesgabe batek eta Erromako inperio-sistema boteretsuaren ordezkari batek.

Bien arteko solasaldia dakar Joanen ebanjelioak. Egia esateko, galdaketa baino gehiago, Jesusen hitzaldia dela ematen du, ebanjelariarentzat interesgarri diren gai batzuk argitzeko. Une jakin batean, aldarrikapen handi hau egin du Jesusek: «**Honetarako etorri naiz ni mundura: egiaren lekuko izateko. Egiarena den orok entzuten du nire ahotsa**».

Jesusen profeta-ibilbidea definitzen duen oinarrizko ezaugarri bat biltzen du baieztapen honek: Jainkoaren egian bizitzeko duen gogo. Jesusek ez du egia esan bakarrik egiten, baizik eta bilatu egiten du egia eta, soilik, bere seme-alaba guztientzat gizatasun handiagoko mundua nahi duen Jainkoaren egia.

Horregatik, aginpidez mintzo da Jesus, baina agintekeria faltsurik gabe. Egiazaletasunez mintzo da Jesus, baina dogmatismorik gabe. Ez da mintzo beren egia ezarri nahi duten fanatikoak bezala. Ezta, hartan sinetsi gabe, beharturik defendatzen duten funtzionarioak bezala ere. Ez da sentitu sekula egiaren zaindari, baizik lekuko.

Jesusek ez du bihurtu propaganda Jainkoaren egia. Ez da baliatu hartaz bere probetxurako, baizik behartsuen defentsarako. Ezin jasan du gezurra edo bidegabekeria ezkutatzeari. Ezin eroan du manipulazioa. Jesus horrela «ahotsik gabekoen ahots, eta ahots gehiegi dutenen kontrako ahots» (Jon Sobrino) bihurtu da.

Ahots hau inoiz baino beharrezkoagoa da krisialdi ekonomikoak harrapatua duen gizarte honetan. Egia ezkutatzeari oinarri sendoenetako bat da, finantza-botere handien eta halakoen eskakizunen mende dagoen kudeaketa politikoaren jardueran. Gezurrean biziarazi nahi digute krisialdia.

Ahal duten guztia egiten dute krisiaren eragile nagusien erantzukizuna ezkutatzeko, eta biktima ahulenen eta babesgabeenen sufrimenduari ezikusia egiten diote erarik makurrenean. Premia gorrikoa da krisialdia gizatartzea, sufritzen dutenen egia arretaren erdigune bihurtuz eta gero eta larriagoa den halakoen egoerari lehenengo ardura eskainiz.

Guztiei eskatzekoa den lehen egia da hori, gizatasunik gabe izan nahi ez badugu. Orogen aurreko datua da. Ezin hartu dugu ohiko gauzatzen gizon-emakume ahulenak betetzen ari diren giza bazterketa eta etsipena. Jesusi jarraitzen diogunok entzunarazi egin behar dugu haien ahotsa, eta, senak eraginda, haien defentsari eta laguntzari ekin. Egiarena den orok entzuten du Jesusen ahotsa.